

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

OLETAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

Oletan dagoen eta haren kontzejuarena den Herriko Tabernaren errentamendua eta ustiaketa esleitzeko prozedura irekia

Oletako Kontzejuak, onspena eman zien Oletan dagoen eta haren kontzejuarena den Herriko Tabernaren errentamendua eta ustiaketa esleitzeko prozedura irekia arautu behar duten administrazio baldintza orokorren agiriari eta klausula teknikoari.

1. Erakunde esleitzaila: Oletako Kontzejuak.

2. Agiriak eskuratzea: Aramaioko Udala (helbidea: Bicente Goikoetxea 1, Ibarra, 01160, Araba); telefonoa: 945445016; faxa: 945445356; udala@aramaio.eus.

3. Kontratuaren xedea: Oletan dagoen eta haren kontzejuarena den Herriko Tabernaren errentamendua eta ustiaketa.

4. Izapidetza eta prozedura: arrunta, prozedura irekia.

5. Oinarrizko errenta. Lizitazio oinarria: hilean 500,00 euro, eta diru kopuru horri kasuan kasuko BEZa erantsiko zaio.

6. Kontratuaren iraupena: urte bat, eta urteka beste 5 urtez luzatu ahal izango da, hau da, guztira hamar urterako, lokala esleipendunari ematen zaionetik kontaktzen hasita.

7. Bermeak:

a) Behin-behinekoa: ez da eskatzen.

b) Behin betikoa: esleipenaren zenbatekoaren ehuneko 5 (BEZa aparte), eta kopuru hori izango da esleipendunak errentarako eskaintzen duena, kontratuak eta haren balizko luzapenek irauten duten aldi guztirako.

8. Eskaintzak aurkeztea:

a) Eskaintzak aurkezteko azken eguna: 22 egun natural izango dira, lizitazio iragarki hau ALHAOn argitaratzen denetik aurrera. Azken eguna ez bada balioduna, epea hurrengo egun baliodunera arte luzatuko da.

b) Aurkezteko lekua: Aramaioko Udala (helbidea: Bicente Goikoetxea 1, Ibarra, 01160, Araba); telefonoa: 945445016; bertaratuta aurkezteko ordutegia: 9etatik 15etara.

c) Dokumentazioa: baldintzen agirian aipatzen da.

9. Esleipen irizpideak: ikus agiriaren IX. klausula.

1. Ustiaketa proiektu onena: gehienez, 30 puntu.

2. Eskaintako errenta handiena: gehienez, 20 puntu.

3. Euskara jakitea: gehienez, 10 puntu.

4. Esperientzia ostalaritza negozioak ustiatzean (taberna-jatetxea): gehienez, 40 puntu.

10. Eskaintzak irekitzea:

a) C gutun azala: jendaurreko ekitaldian, proposamenak aurkezteko epea bukatu eta hurrengo bosgarren egun naturalean (egun hori larunbata edo jaieguna bada, hurrengo egun baliodunera arte atzeratuko da), 19:00etan, Oletako Kontzejuaren etxean, zeina Oletako plazan baitago.

b) B gutun azala: kasuan kasuko txostena eman eta gero, haren emaitza jendaurreko ekitaldian emango da jakitera. Ekitaldi hori egingo da aurreko gutun azala ireki eta hirugarren egun naturalean (egun hori larunbata edo jaieguna bada, hurrengo egun baliodunera arte atzeratuko da), 19:00etan, toki berean, eta B gutun azala ekitaldi berean irakurriko da.

11. Iragarki gastuak: esleipendunak ordainduko ditu. Ikus agiriaren X. klausula.

Oleta, 2020ko ekainaren 15a

Lehendakaria

TXOMIN GOIKOLEA APAOLAZA